

-IRABAZI ITURRIAK:

Gure diru iturri nagusia **aktiboen salmenta** izango da. Gure negozioak aurrera egitea ahalbidetuko digun diru iturria izango da.

Erabilitako arropa jasoko dugu eta diseinu berriak sortuko ditugu. Horiek izango dira salduko ditugunak eta hauei **prezio finko** bat ezarriko diegu.

Bestetik, kontuan izan behar dugu, pertsona bakoitzari egokitutako diseinuak ere egingo ditugula eta kasu horretan ezaugarrien arabera prezioa ezarriko diogu:

- **Ezaugarrien arabera prezioa:** diseinua eta kalitatea kontutan hartuta, hau da, jantzia egiten erabili diren lan orduak eta materiala kontuan izanik, prezio bat ezarriko diogu ekoiztu dugun produktuari.

Bezeroen lehiatasuna lortu asmoz, erosten duten kantitatearen arabera ere prezioak aldatuko dira:

- **Bolumenaren arabera prezioa:** prezioa aldatu egiten da erositako kopuruaren arabera. Adibidez: bezero batek 100 euro baino gehiago gastatzen baditu hurrengo erosketan %10-eko deskontua egingo zaio.

Horrez gain Negozioa martxan jartzeko bazkide bakoitzak x kopurua jarriko dugu. Donostiako udaletxeak enpresak sortzeko eskeintzen dituen diru laguntzak eskatuko ditugu.

